



2025

TOLOSAKO BERDINTASUN BEHATOKIA: SAN JOANAK 2025 SAN JOANEN ANALISIA

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA.....	3
2.	KOKAPEN HISTORIKOA ETA 2024ko LANAK	4
3.	LAN PROZEDURA	6
4.	NOLA IRAKURRI DOKUMENTUA.....	7
5.	KOMUNIKAZIOA	¡Error! Marcador no definido.
6.	EGITARAU.....	8
6.2	Txupinazoa	8
6.4	Musika-ikuskizunak	10
6.6	Kirolak.....	18
7.	INDARKERIA MATXISTA	22
8.	BALORAZIO OROKORRA	27
9.	GEHIGARRIAK	29

1. AURKEZPENA

Dokumentu honen bidez, 2025ko Tolosako San Joan jaietan egindako Berdintasun Behatokiaren analisia aurkezten da. Aurreko urteetako lanari jarraituz, jai giroko hainbat arlotan generoaren ikuspegitik egindako azterketak jaso dira hemen, orain arte lortutako aurrerapausoak balioan jarritz eta etorkizuneko erronkak begien aurrean jarritz.

Behatokiaren lana ez da bakarrik udaleko arduradun politikoei eta teknikoei begira egiten; herritar guztioi ere zuzentzen zaigu, baita jaietako antolakuntzan harreman zuzena duten eragileei ere. Ondoren, hemendik ateratako ondorioak¹ jaietan parte hartzen duten elkarteei, herri-eragileei, eta, oro har, herritarrei ere jakinarazten zaizkie; alde batetik, udal-webgunean Berdintasunak duen atalean txostena zintzilikatuta, eta bestetik, horren berri emanez.

Dokumentu honetan, Behatokiaren lana bi norabidetan erakusten da: alde batetik, Tolosako Udalak berdintasunaren alde daraman lanari balioa ematen zaio eta, bestetik, etorkizunera begira sakontzeko proposamen zehatzak egiten dira, ikuspegi estrategiko eta praktikoa batetik, irizpideak argiak eskainiz. Gainera, hartzaile izango diren departamentuetako teknikariak eta politikariak sentsibilizatzeko bokazioa ere badu: gure jaietan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzearen inguruan oraindik ematen diren diskriminazio-egoerak ezagutzeko, horien inguruan kontzientzia hartzeko eta neurriak hartzeko gaitasun gehiago izan dezaten.

Dokumentuak egitura argia du: lehenik, Behatokiaren jatorria eta azken urteetako ibilbidea azaltzen dira; ondoren, lan-prozedura zehazten da; jarraian, aztertu diren bi arlo nagusiak lantzen dira (egitaraua eta indarkeria sexista); eta amaitzeko, etorkizunera begira aintzat hartu beharreko urrats nagusiak aurkezten dira, ondorio orokor moduan.

Amaitzeko, guztiok nahi ditugu jai alai, parte-hartzaile eta seguruak. Berdintasunak guztion parte-hartzea eskatzen du, eta bide honetan elkarrekin jarraitzea da helburua. Eman dezagun urrats bat gehiago elkarrekin!

¹ Txosten hau eta orain arte egindakoak Tolosako Udalaren web-orrian daude:
<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jaiak-behatokia-eta-gida/jaiak-behatokia>

2. KOKAPEN HISTORIKOA ETA 2025KO LANAK

Tolosako Udalak 2010. urtetik darama jaietan berdintasun-ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2016. urtean, Tolosako Jaiei Berdintasun Behatokia diseinatu zen Berdintasun Departamentuaren lidergoarekin. Behatokiaren helburua berdintasun-politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu honetan udaleko hainbat udal-departamentuk parte hartzen dute neurri eta modu oso ezberdinetan.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa-esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hori azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna “bizia” bezala ulertu behar delako; hau da, momentuan momentuko jaietara eta tolosar jendartera egokitu behar dena.

2017. urtean, Behatokia lehen aldiz martxan jarri zen. Urte horretan, diseinatutako eredua eta tresnen frogatzea planteatu zen, eta hortik ateratako ikaspenetan oinarrituta, beharrezko hobekuntzak egin ahal izan ziren. Ondorioz, 2017an San Joan jaietan egindako lanketarekin txosten bat egin zen.

2018an aurreko urteko ikaspenetan oinarrituta Behatokiak lanean jarraitu zuen, eta beste esparru batzuetara ireki zuen bere lanketa eta eragin-markoa; hau da, Behatokia jaietako kirol-jarduerak txertatu zituen bere analisian, baita Larramendiko jaiak ere.

2019an, COVIDaren ondorioz, Behatokiak urte horretan San Joan jaiak aztertu beharrean (ez ziren jaiak ospatu), inauteriak aztertu zituen (horiek bai ospatu ziren). Beraz, lehenbiziko aldiz, Behatokiko analisisetan inauteriak txertatu ziren. Pandemiaren iraupena eta eragina zirela eta, hurrengo bi urteetan ez ziren jaiak ospatu, eta Behatokiak jai berdinzaleetarako lehen plana osatu zuen 2020-2021ean; planak barne biltzen zituen 2021-2024 arteko ekintzak.

2022. urtean, berriz normaltasunez ospatu ziren San Joanak, eta Behatokiak haiei zegokien analisi-lanari ekin ahal izan zion. Lehen aldiz, dokumentuan aurreko urteetako datuekin alderaketa bat egin zen, berdintasunaren esparruan ematen ari den eboluzioa ikusgarri egin ahal izateko.

2023. eta 2024. urteetan, analisi konparatuari helduz gain, momentuko argazkia ateratzen jarraitu du.

2025ean aurreko urteen joerarekin jarraitu da, baina, azkenengo urteetako analisiari eraldaketa txiki bat txertatzea erabaki da, hain zuzen ere, aurten komunikazioa ez aztertzea erabaki da. Alde batetik, urte honetan Behatokiak beste gai batzuetan sakontzea erabaki duelako, eta ondorioz San Joan jaien azterketa arindu behar zela pentsatu zen, bestetik, komunikazioaren gaia azkenengo urteetan izan duen eraldaketa positiboagatik eta horrek izan duen iraunkortasunagatik². Hala ere, orain arte landu diren beste gai guztiak bere horretan mantendu dira.

Behatokiaren beste lanak 2025an zehar

Behatokia San Joanak, inauteriak eta Larramendiko jaien azterketa eta neurketa egiteaz gain, beste eremu batzuk jorratzen ditu Tolosako jaiak ikuspegi feministatik berdinzaleagoak izan

² Gaiaren inguruan jakin nahi izan ezker 2024ko azterketara joan.

daitezen. Hori dela eta, 2025ko lehen sei hilabeteen zehar Behatokia honako gaietan aritu da lanean:

- Behatokiaren plangintza
 - Behatokiaren urteko plangintza adostea Berdintasun eta Jaietako arloekin.
- Jakintza sortu: emakumeen parte hartzea lehiaketa gastronomikoetan.
 - Babarrun festaren genero-analisan oinarrituta, Babarrun lehiaketan berdintasuna bultzatzeko irizpide batzuk inplementatu ziren, hori dela eta, aurtengo lehiaketan parte hartu duten emakumezkoen parte hartzearen zergatiak ezagutu nahi izan ditugu.
- Tresnen diseinua eta sozializazioa
 - Herriko gaueko ostalaritzarentzako indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren pilotajea eta hedatzea egin da.
 - Jaietan epaimahai parekideak osatzeko irizpide-gida eraiki da.
- Jaietako azterketak
 - Inauteriak
 - San Joanak
- Zubi lanak: jaietako eragileekin koordinazioa
 - Larramendi auzo-elkartea
 - Musika-eskola
 - Gure Kaiola
 - Kabi Alai

3. LAN PROZEDURA

Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren oinarrien dokumentuan horren funtzionamendu eredua eta tresnak azaltzen dira, eta horietatik abiatuta, beharrezko egokitzapenekin, 2025. urteko lanketa egin da. Lau faseko prozesua izan da.

Hauexek dira faseak eta bakoitzean egindako lanketa:

- **Plangintza.** Lehenbiziko fase honetan, 2025ko San Joan jaietan aztertuko zenaren aurreikuspena egin zen.
- **Informazioa jaso.** Alde batetik, udal-departamentuei beharrezkoa zen dokumentazioa eskatu zitzaion (aktak, jardueretako partaideen zerrendak, egitaraua, diru-laguntzen fitxak...). Udal-arloez gain, herriko hainbat eragilerekin bildu edo hitz egiten da, beharrezkoa balitz, haien esku dagoen informazioa eta jakintza eskuratzeko.
- **Analisia.** Informazio guztia eskuratu ondoren, analisia egin zen.
- **Komunikazioa.** Ateratako emaitzak, udal-teknikari eta zinegotzi guztiak gonbidatzen diren sentsibilizazio-saio batean azaltzen dira. Azkenik, Berdintasun Departamentuko web-orrian herritar guztien eskura jartzen da.

Lanketa guztia Berdintasun Departamentuaren eta Behatokiaren arteko elkarlanean egiten da.

4. NOLA IRAKURRI DOKUMENTUA

Txosten honek oso banaketa sinplea eta intuitiboa izateko eraiki da. Landutako gai bakoitzak atal bat osatzen du, guztira 2 atal nagusi: Egitaraua eta Indarkeria. Egitarauan, beste 3 gai biltzen dira: Txupinazoa, Musika eta Kirolak.

Beraz, honela litzateke eskema:

1. Egitaraua
 - Txupinazoa
 - Musika
 - Kirolak
2. Indarkeria

Atal bakoitzean egin den azterketa jasotzen da, eta ondoren, balorazio txiki bat jasotzen da. Jarraian eta atala ixteko, adierazle batzuk daude.

Amaitzeko, balorazio orokorraren atala dago.

5. EGITARAUA

5.1 Sarrera

Genero-ikuspegitik jaietan zer programatzen dugun aztertzea oinarritzkoa da Behatokiarentzat; izan ere, zer-nolako jaiak egiten ditugun erakustez gain, zer-nolako jaiak nahiko genituzkeen galdetzea planteatzen digu. 2025. urteko San Joan jaietako **txupinazoa**, **musika** eta **kirol-ekintzak** aztertu dira.

5.2 Txupinazoa

Txupinazoa jaietako momentu gorenetakoa bat da, eta **ohorezko ekintza moduan kategorizatzen da**, herriak sinbolikoki herrikide bat edo talde bat omentzen duelako horrek egindako lanagatik. **2018. urteaz geroztik, txupinazoa nork botako duen aukeratzeko berdintasun-irizpideak ere hartzen dira kontuan**, eta jai bileren oniritzia jaso behar du.

2025ean **TOLOSA KANTARI** taldeak izan du ohorea. Suziria taldeko zuzendariak piztu ostean balkoitik jaitsi eta kantari hasi dira, beraien jardunak agintzen duen bezala³.



1 Irudiak Atariatik atera dira

Berdintasun-ikuspegitik, ondorengo **analisia** egin dezakegu: Tolosa Kantari taldeak txupinazoa botatzea genero berdintasunaren adierazgarri da. Talde misto batek jaietako hasiera iragartzeak parekidetasuna eta elkarbizitza irudikatzen ditu. Bereziki nabarmena da emakumeek kultura herrikoian duten presentzia aktiboa. Historikoki gizonezkoen esparru izandako espazio bat emakumeek ere hartu dute, kantaren eta parte-hartzearen bidez. Horrek adierazten du protagonismo soziala ez dagoela genero baten esku bakarrik, baizik eta komunitate osoarena dela. Jaiak, hala, gizarte aldaketaren eta balio berrien eszenatoki bilakatzen dira.

Hala ere, azpimarratu behar da, omenduek urtero egin ohi den bezala, ez dituzte indarkeria kanpainako pegatinak paparrean eraman.

Ikusleei dagokienez, ehunka lagun bildu ziren; gehienak nerabeak, gazteak eta haurrak helduekin. Jarrera aktiboa eta alaia izan zuten, jai-giroan ohikoa den moduan.

Txupinazoa amaitutakoan, **erraldoiak eta buruhandiak sartu ziren plazara**, ohikoa den moduan. Erraldoiak **3 gizon eta emakume bikote dira**, eta bikoteka dantza egiten dute, bikote

³ <https://28kanala.eus/tolosa/1750441417002-piztu-dira-san-joanak-tolosan>

eredu heterosexuala irudikatuz. Buruhandiak gizonak irudikatzen dituzte, eta gehienetan mutil gazteak dira honen ardura dutenak. Dultzaineroak gizonak izan ziren.

Aurreko urteekin alderatuz

Dagoeneko, 2018ko San Joanen ostean adostu zen bezala, Txupinazoa botako duen pertsonaren edo eragilearen aukeraketarako **irizpide** batzuk indarrean daude.

Dagoen zor historikoa orekatzeko helburuarekin urtero emakumeak txupinazoa botatzeak izango du lehentasuna (zorra orekatu arte, behintzat). Hori bermatzerik ez badago, ondorengo irizpideek izango dute lehentasuna horien hurrenkeraren arabera:

1. Talde edo kolektibo mistoa izatea.
2. Bi generoak bermatuta egotea; hau da, txupinazoa bi elkarte edo kolektibok botatzea adibidez gimnastika erritmikoko taldea (denak neskak dira) eta txistulariak (denak gizonezkoak dira).
3. Alterno positiboa. Hau da, aurreko irizpideak bermatu ezin badira, eta gizon talde edo kolektibo batek botako balu txupina, hurrengo 2 urteetan emakumezko talde edo kolektibo batek bota beharko luke.

Txupina gizonezkoek osatutako talde edo kolektibo batek botako balu, berdintasunari keinu bat egitea eskatuko zaio: hala nola, indarkeriaren kontrako bandera bat edo pegatinak eramatea; hitza hartuz gero, berdintasunaren aldeko mezuak botatzea...

Beraz, **irizpide horiekin parekidetasuna eta berdintasuna bermatzen dela ziurtatuko litzateke**.

Irizpideak indarrean daudenetik hauek izan dira txupinazoa bota dituztenak:

		EMAKUMEAK	GIZONAK	MISTOA
2025	Tolosa Kantari			1
2024	Aiora Zulaika, "Pirritx".	1		
2023	Gainditzen elkarte			1
2022	Katixa Perea, Ballet irakaslea	1		
2019	Udal Txistularien Banda		1	
GUZTIRA		2	1	2

5.3 Balorazioa

Orokorrean

Txupinazoa aztertzeak jaietako eremu oso esanguratsuan fokua jartzea suposatzen du. Dagoeneko, **txupinazoan berdintasuna bermatzeko tresna diseinatu, adostu eta aplikatzen da**. Horrek jaietan eragina izan duela ezin da ukatu; hala ere, **urtez urte eraginkortasun-maila mantentzen dela eta hutsuneei aurre egiteko berriak integratzen direla bermatu behar da**.

Balorazioa berdintasun-adierazleen bitartez

Alor hau amaitzeko, berdintasun-adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahal izango dugu gaien egoera, baita modu sinple batean neurtu ere.

Programazioan

	GUTXI	ERABAT
Txupinazoa aukeratzeko udal-irizpideen tresna erabili da		
Txupinazoa aukeratzeko udal-irizpideen tresnaren helburuak lortu dira		
Txupinazoa aukeratzeko udal-irizpideen tresna jaietako eragileek eta herritarrek ezagutzen dute		
Txupinazoan berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren kontrako aipuak egin dira		
Txupinazoa aukeratzeko udal-irizpideen tresna ebaluatu da eta egokitzapenak egin dira		

5.4 Musika-ikuskizunak

San Joan jaietan, askotariko musika-estilo programatzen dira, adin desberdinei eta gustu zabalei zuzenduta. Tolosako tradizioari jarraiki, kontzertuek, kale-musikak eta txarangek zein musika tradizionalak presentzia nabarmena dute.


2025. urteko San Joanetan 31 musika emanaldi egon dira, eta 576⁴ musikarik jo dute. Izan ere, analisi kuantitatiboa egin dugu, musika-talde horietako kideen sexuari erreparatuz. Analisiarekin hasi aurretik, kontaketa egiteko orduan kontuan hartu ditugun irizpide batzuk aipatu nahiko genituzke:

- Musika emanaldiak kontabilizatu ditugu, eta ez talde kopuruak; izan ere, talde batzuek behin baino gehiagotan jo dute, eta programazioan duten lekua ikusgarri egiteko, jarduera bakoitza kontatu dugu.
- Datuak ez dira erabat zehatzak, batez ere talde handien kasuan. Batzuetan, zaila izan da kideen kopuru zehatza lortzea, eta gutxi gorabeherako estimazio bat egin dugu. Hala ere, ez dugu uste honek ikuspegi orokorrean eragin nabarmenik duenik.

⁴ Datu metatua da. Hau da, musikari batzuk behin baino gehiagotan jo dute, adibidez Udal musika banda edo Udal Txistulariak.


- Bakarlarien kasuan, bakarlariaz gain bere banda nola dagoen osatuta kontutan hartu dugu.
- Sexuari erreparatu diogu estereotipoetan oinarrituz; hau da, musikari bakoitzari ez diogu galdetu zer genero identitatearekin atxikitzen den. Hala ere, emanaldiren batean sexu-genero estereotipoetara egokitzen ez diren musikariak egon diren kasuetan, sexu-genero transgresoretzat identifikatu ditugu.

Musika-ikuskizun horien genero-analisiarekin hasteko, ikuskizun guztietan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopuru totala alderatu dugu. Esan bezala, **576 musikarik hartu dute parte guztira, eta horietatik, 193 emakumezkoak izan dira (% 34), 382 gizonezkoak (% 66) eta 1 sexu-genero transgresorea (%0).** Datuak parekideak ez izan arren, oso gertu gelditu dira.



Ondorengo taulan eta grafikoan azken urteetako eboluzioa ikusi daiteke.

2025			2024			2023		2022		2019		2018	
Emakum	Gizonak	transgresoreak	Emakum	Gizonak	transgresoreak	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	gizona
34%	66%	0%	38%	62%	0%	40%	60%	36%	64%	28%	72%	36%	64%




Izan ere, 2018. urtean musika-emanaldietan emakumeen presentzia handitzeko, udalak musika-taldeak kontratatzeak irizpideak ezarri zituen eta horrela dio:

- 1) Kontratatuak diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoak izango dira.
 - a) Igotzen den heinean, aurreko urteko gutxienezko ehunekoa (%) hurrengo urteko minimo bezala onartuko da.
 - b) Urtez urte gutxienezko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte.


Horren aurrean, datuak ez dira guztiz baikorrak, nolabait, “a” eta “b” irizpideak ez dira lortu, alabaina, %36ko emakumeen kontratazioetik oso gertu egon da. Ordea, bigarren urtez, sexu-generoa transgreditzen duen musikari bat programatu da: djFulana. Nahiz eta emakumeen presentzia areagotzeko prozesuan ez den kontuan hartzeko, oso positibotzat ikusten da genero ikuspegitik. Hain zuzen ere, gizartean markatuta ditugun genero-arauak gainditu dituelako. Beraz, behatokiaren ikuspegitik jaietan horrelako ereduak gero eta presenteago egon beharko lukete.

Musikarien sexuaz gain, musika-taldeen izaeraren inguruko azterketa ere egin dugu, sexuaren araberrako osakeran arreta jarritz. Atal honetan, lau kategoria bereizi ditugu: talde mistoak, emakumez osatutakoak, gizonez osatutakoak, sexu-genero transgresoreek osatutakoak. Ondorengo grafikoan ikusten den bezala, **taldeen gehiengoa mistoak dira (% 62,5; 20 talde), hau da, emakumez eta gizonez osatuta**. Ondoren, gizonez osatutako taldeak daude (%28; 9 talde), jarraian eta alde handiarekin, emakumez soilik osatutakoak (% 6; 2 talde) eta sexu-generoa transgreditzen duten taldeak azkenik (% 3, talde bat).



Aurreko urtean bezala, emakumez bakarrik osatutako talde kopurua mantendu da, bi. Hala ere, aurreko urteetan 4 izan ziren programatutako emakumez osatutako taldeak. Bestalde, **gizonezkoen osatutako taldeen kasuan aurten izan da kopuruz gutxien programatu den urtea. Talde mistoen kasuan, urtero bezala gehien programatu dena da.** Amaitzeko, 2024ean egindakoari jarraipena emanez, **aurten sexu-generoa transgreditzen duen talde bat programatu da.** Hortaz, joerari orokorrari dagokionez, gauza batzuetan mantendu da eta beste gauza batzuetan hobera joan da.


	2025		2024		2023		2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Emakumez bakarrik osatuta	6	2	7	2	15	4	8	4	10	4	8	4
Gizonez bakarrik osatuta	28	9	39	11	37	10	34	16	27	11	34	16
Talde mistoak	63	20	50	14	48	13	58	25	63	26	58	28
Sexu-genero transgresorez osatuta	3	1	4	1	-	-	-	-	-	-	-	-



Talde mistoak emakumez eta gizonez osatutako taldeei esaten diogu. 2007ko martxoaren 22ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Organikoan oinarritu gara eta horrela definitu ditugu talde mistoak:


- **Talde misto orekatua:** partaideak sexuen arabera banatuta jartzean, bi sexuen kopuruak partaide guztien % 60 eta % 40 bitartean kokatzen badira.
- **Talde misto feminizatua:** % 60tik gora neskak badira.
- **Talde misto maskulinizatua:** % 60tik gora mutilak badira.

Agerikoa da **talde mistoen artean, gehiengo zabala talde maskulinizatuak** direla **%80;16**, bigarren maila batean, **orekatuak %15;3**, eta **feminizatuak %5;1, ordea, azkenak.**




Azken urteen arteko konparazioa egiten badugu, **talde misto maskulinizatu**en nagusitasuna oraindik nabarmena da. Talde misto feminizatu bat programatu zen eta talde misto orekatuei dagokienez, gutxien egon den urtea izan da.

	2025		2024		2023		2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Misto OREKATUA	15	3	36%	5	31%	4	20%	5	15%	4	18%	5
Misto FEMINIZATUA	5	1	0%	0	15%	2	0%	0	0%	0	7%	2
Misto MASKULINIZATUA	80	16	64%	9	54%	7	80%	20	85%	22	75%	21



Musika-ekitaldien esparruan, **gauetan programatzen diren kontzertuek garrantzia berezia** dute. Oso jendetsuak izan ohi dira, eta aurrekontuen ehuneko handiak ere bideratzen dira ikuskizun horietara. 2025. urteari dagokionez, **talde misto maskulinizatuak diren taldeak nagusi dira (%54;7)**, ondoren mutilez osatutako taldeak doaz (%31;4), maila apalagoan emakumez osatutakoak (%7,5;1), eta misto feminizatuak daude (%7,5;1) eta azkenik misto orekatuak (%0;0) daude.



Taldeen osaketaren datuak bere osotasunean hartuz gero, eta azkenengo 5 urteen alderaketa egiten bada, orokorrean gauza batzuk mantentzen direla ikus daiteke, hala nola, **2019tik emakumez bakarrik osatutako talde bat edo bi programatu direla**. Era berean, 2 taldeen langa gainditzeko zailtasunak daudela dirudi.

		2025		2024		2023		2022		2019		2018	
		Datua	%	Datua	%	Datua	%	Datua	%	Datua	%	Datua	%
Emakumez osatutako taldeak		1	7,5 %	2	7%	2	9%	1	5%	1	6%	0	0%
Gizonez osatutako taldeak		4	31%	11	41 %	5	24 %	10	48 %	7	43 %	10	43 %
Mistoa	Feminizatua	1	7,5 %	0	0%	2	9%	0	0%	0	0%	2	8%
	Orekatua	0	0%	5	19 %	4	19 %	2	9%	0	0%	3	34 %
	Maskulinizatua	7	54%	9	33 %	8	38 %	8	38 %	8	50 %	8	13 %

Aurrekontua

Musika-aurrekontuari dagokionez, jaietako **aurrekontu altuena** eramaten duen atala izaten da. 2025. urtean, jaietako aurrekontu osoa 214.357€ izan zen, eta kopuru horretatik, musika-emanaldiek, horietan ulertu behar da gauetako eta eguneko kontzertuak eta dultzaineroak, txarangak eta banden emanaldiak, 94.946€ko aurrekontua izan zuten, hau da, aurrekontu osoaren % 44 bideratzen da musika-emanaldietara.

Musikarien artean, desberdintasun handiak daude beraien lanagatik kobratzen duten diruaren inguruan, batzuek eta besteek duten kaxetari lotuta batez ere. Oro har, taldearen edo bakarlariekin ospearen arabera kobratzen da, batzuetan fama hori momentuko moda izan daiteke; hau da, urte

horretan fama hartu dutelako. Beste kasu batzuetan, duten ibilbideagatik izaten da. Hala ere, ohikoa da gizonezkoek ospe handiagoa izatea, ondorioz gehiago kobratzen dute. Aurtengo kasuan ez da lortu jakitea zein izan den gehien kobratu duen taldea, hala ere, aurreko urtean talde misto orekatu bat izan zen.

5.5 Balorazioa

Orokorrean

Aurten, **emakume musikarien datua %34** izan da. Berez, **jaietarako udalak duen programatzeko gutxieneko irizpidera gutxigatik ez da heldu** (% 36), bestetik, **ez da lortu bertan jasotzen den bigarren irizpidea**, hau da, aurreko urteko (2024an %38 izan zen emakumeen parte hartzea) langa gainditzea % 50era heldu arte.

Programazioan, Behatokiak egin dituen aholkuei jarraitu dira, bigarren urtez **sexu-generoa transgreditu duen talde bat** egon da: djFulana. Horretaz gain, **emakumeez bakarrik osatutako 2 talde programatu dira, aurreko bi urteetan bezala**. Alegia, emakumeez soilik osatutako musika taldeak eta gizon-emakumea dikotomia gainditzen dituzten musikariak programatu dira.

Oro har, eta urteen arabera konparazioa eta irakurketa egin ostean, **urtez urteko argazki baten aurrean gaudela esan daiteke**. Hau da, **% 36ko langaren irizpidea argi dago**, beste joera batzuk ere ikusten dira, hala nola, programazioan **emakume musikariei garrantzia ematea**, hala ere, handik aurrera **irizpideak aplikatzeko zailtasunak daudela** ikusten da⁵.

Balorazioa Berdintasun adierazleen bitartez

Alor hau amaitzeko, berdintasun-adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahal izango dugu gaien egoera, baita modu sinple batean neurtu ere.

Programazioan

	GUTXI	ERABAT
Musika programatzean, emakumeen ehunekoa igotzeko udal-irizpideen tresna erabiltzen da		
Tresnak dituen helburuak lortu dira		
Gizon/emakume binomioa gainditzen dituzten musikariak programatzea kontuan hartu da.		
Musika programatzeko udal-tresnaren balorazioa egin da.		
Jaietako balorazio-bileran musikako datuen berri eman da.		
	GUTXI	ERABAT

⁵2023ko txostenean eremu honetarako gomendiok jaso ziren.

Jaietako eragileek ezagutzen dute musika programatzeko udal-
tresna.

Aurreko urteko Behatokiko aholkuak kontuan hartzen dira

GUTXI

ERABAT

5.6 Kirolak

Jarduera honen **analisi**a nagusiki **kuantitatiboa** izan da, egitarauan eta bereziki jaietan kirol-ekintzaren bat antolatu duten **elkarteek betetako fitxan oinarritu gara**. Aipatu dugun fitxa Kirol Arlotik diru-laguntzak jasotzeko “San Joanetako kirol-jardueraren memoria” inprimakia da. Inprimaki hori kirol-jardueraren bat antolatzen duen orok bete behar du ekintzaren diru-laguntza jaso ahal izateko. Beraz, atal honetan kirol-arlotik diru laguntza jaso duten kirol-jarduerak analizatu dira. Hala ere, ezin dira ekintza guztiak analisian sartu, denek ez dutelako inprimakia bete txosten hau egin den epeetan. Horretaz gain, aipatu behar da ekintza batzuetan informazio gehiago dagoela eta beste batzuetan gutxiago.

Jaietan kirol-jarduera asko antolatzen dira, gehienetan kirol-klubek edo elkarteek berek, edo horien laguntzarekin antolatutakoak. Festa-egitarauetan kirol-jardunak sartzeak berarekin dakar eremu horretako balioek eta ereduak neurri handi batean baldintzatzea festen izaera, eta, bereziki emakumeen parte-hartzea.

Esandakoari eutsiz, kirolaren egungo egitura kontuan hartzen bada, guztiz androzentrikoa dena, zaila izango da festetara sartzen diren kirol-jardunak kutsu hori ez izatea. Festa, bizitzako beste eremu asko bezala, gizontasun “izaera” birsortzeko eta berresteko leku edo modua da. Zalantzarik gabe, jai gehienetan gizonak nabarmenago agertzen dira eta hori lotuta dago genero-harremanak ulertzeko erarekin. Egile ezberdinetako hainbat ikerlanek argi uzten dute kirolaren eta gizontasuna birsortzearen arteko erlazioa eta beharra. Hau da, gizontasunaren eredu agintzailea (lehiakortasuna, indarra, abiadura, bortizkeria, indibidualtasuna eta abar) beste gizonei erakusteko, birsortzeko eta berdinen onarpena lortzeko espazioak behar dira, eta kirola horietako bat da.

2025ko San Joanetako programan honako kirol-motak identifikatu dira:


Ekintza	Kirol-mota
Gimnastika erritmikoa, emanaldia	GIMNASIA ERRITMIKOA
Urtzi memoriala Futbol-txapelketa	FUTBOLA
Ugaitz Sainzen omenez Saskibaloia, 3x3 txapelketa	SAKIBALOA
SanJoanetako xake txapelketa	XAKEA
T3T eta T2T Mendi-maratoia	LASTEKERTA
Infantil eta kadete estropada	ARRAUNA
Euskotren liga Tolosako traineruaren aurkezpena	ARRAUNA

Olano Txirrindularitza-martxa	TXIRRINDULARITZA
San Joan Padel txapelketa finala	PADEL
Infantil mailako San Joan Eskubaloi txapelketa	ESKUBALOA

Zerrenda honetatik, bakarrik 3x3 saskibaloiak, Xake txapelketa, Eskubaloi infantil txapelketak eta Padel finalak parte hartu dute analisian. Esan bezala, azterketa egin den epeetan kirol horiek besterik ez dute dirulaguntza-fitxa bete.

Partaidetzaren genero-analisia

Jaso diren fitxetako informazioan oinarritu ostean, **gizonezkoen kopurua guztira 407 (% 65) izan da eta emakumezkoena 215 (% 35); beraz, partaidetza ez da aurreko urtean bezain parekidea izan.**



Fitxa bete duten kirol-zerrendako ekintzak banan-banan hartzen baditugu, azterketan sartu diren kirol guztiak mistoak izan badira ere, **gizonezkoen parte hartzea altuagoa izan da** kasu guztietan, **eskubaloi-txapelketa infantila parekideena izanik** (%46-%54).


2024ko, 2023ko, 2022ko, 2019ko eta 2018ko datuekin alderatzen badugu, emakumeen parte-hartzea urteetan zehar igo bada ere, 2025ean berriz behera egin du. Hala ere, kontuan hartu behar da aurreko analisietan kirol gehiago aztertu zirela; beraz, konparaketa ez da egoera berdinetan gertatu.

URTEA	EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA
2025	% 35
2024	% 41

2023	% 28
2022	% 27
2019	% 51
2018	% 23

Antolakuntzaren analisia

Ekintzetan parte hartzen dutenez gain, jarduera antolatzen dutenak ere kontuan hartu ditugu. Kasu honetan **antolatzaileen datuak parekideak** dira, emakumeak % 44 eta gizonak % 56. Guztira 140 lagun egon dira kirol-jarduerak antolatzen: 62 emakume eta 78 gizon.



Dirulaguntza jasotzeko fitxan berdintasunaren inguruan hainbat galdera egiten dira, hala nola, hizkuntza sexistaren inguruan, emakume erreferenteak, estereotipoak hausteko ekintzak, akzio positiboak eta abar; baina, galdera horiei emandako erantzunak urriak dira. Hala ere, erantzunetan aktiboena 3x3 saskibaloia txapelketa eta eskubaloia izan dira. Beraien berdintasunaren ikuskera eta emakumeen parte-hartzea eta espazio ez-sexistak sortzeko eta bultzatzeko dituzten estrategiak konpartitzen dituzte. Gehienetan begirada eta ekintzak oso lotuta daude ezberdintasunak ekiditera; 3x3 saskibaloia kasuan, baita ekintza positiboak pentsatzera ere.

Urte urte **galdera horiei erantzuteko** dauden **zailtasunak** ikusita, **jarduerak antolatzen dituzten elkarteekin lanketak egitea beharrezkoa bihurtzen ari da**. Halaber, gero eta beharrezkoagoa da **"kirolaren eta jaien" gaia ikuspegi integral batetik lantzea**.

Azkenik, eta lehenengoz, kirol talde batek (Tolosa C.F. Eskubaloia taldeak) interesa adierazi du, esanez txapelketa berdintasunean egiten dutela ulertzen badute ere, kanpoko beste eragile baten laguntzak jarduera berdinzaleagoak egiten lagunduko liekeela.

5.7 Balorazioa

Orokorrean

Kiroletako parte hartzaileen eta antolatzaileen datuak ez dira parekideak izan, baina ez dugu ahaztu behar **datu-bilketa partziala** izan dela; hau da, antolatutako 9 kirol-jardueretatik bakarrik 4k erantzun dute dirulaguntza jasotzeko fitxa.

Antolatzen diren jarduera fisikoek gizontasunarekin lotuta egotea dute ezaugarri nagusi; hau da, gizonen kirol hegemonikoak dira gehienbat (futbola, saskibaloia, txirrindularitza, zesta eta abar). Horretaz gain, **txapelketak edo lasterketa formatua da nagusi**; lehia, alegia. Azpimarratu behar da **feminizatutako kirola** ere programatu dela, urtero bezala, **gimnastika erritmikoa**; kasu honetan, erakustaldia. **Neutroago** bezala izenda daitezkeen **jarduera fisikoak** ere antolatu dira, besteak beste, padel edo igeriketa. Nabarmendu behar da aurtengo **Euskotren ligako emakumeen traineruen aurkezpena** ere antolatu dela, pasadan urtean bezala. Horrelako ekintzek balio handia izaten dute, **emakumeentzako erreferenteak sortzen laguntzen dutelako**, besteak beste.

Bukatzeko, kontutan hartuta kirolak eta jarduera fisikoak garrantzia handia dutela jaietan eta horrelako jarduerak antolatzen jarraituko dela, komenigarria litzateke gai horri heldzea. Bai antolatzen diren kirol-modalitateetan, bai jardueren helburuetan, hausnarketa sakonagoa egin behar da.

Balorazioa berdintasun-adierazleen bitartez

Alor hau amaitzeko, berdintasun-adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahal izango dugu gaien egoera, baita modu sinple batean neurtu ere.

Datu-bilketa

	GUTXI	ERABAT
Berdintasuna neurtzeko informazioa jasotzea sistematizatuta dago		

	GUTXI	ERABAT
Berdintasuna neurtzeko informazioa jasotzeko tresna garaiz heltzen da azterketa egiteko		

Parte-hartzea eta sentsibilizazioa

	GUTXI	ERABAT
Parte-hartzea orekatzeko neurriak hartu dira jaietan		

	GUTXI	ERABAT
Emakumeen parte-hartzea bultzatzeko neurriak hartu dira jaietan		

Emakume kirolariak ikustarazteko ekintzak antolatu dira	GUTXI	ERABAT
Jarduerak antolatzen dituzten eragileei berdintasuna bultzatzeko tresnak edo formazioa eman zaie jaiei begira	GUTXI	ERABAT
Jarduerak antolatzen dituzten eragileei indarkeria matxistaren inguruan formazioa eman zaie jaiei begira	GUTXI	ERABAT
Jaietan zer jarduera fisiko mota nahi dugun hausnartu da	GUTXI	ERABAT
Jaietako balorazio-bileran kirol-datuen berri eman da	GUTXI	ERABAT

6. INDARKERIA MATXISTA

6.1 Sarrera

Euskal gizartean indarkeria sexistaren gaia jaietan oso presente egon izan da azken urteetan eta Tolosa ez da gutxiago izan gai honetan. Nolabait, sexu-erasoen kasuek egoeraren larritasuna agerian uzten dute, eta erakunde publikoek beraien ardura hartzen ari dira, arian-arian. **Tolosa aitzindaria izan da gai horretan, eta indarkeria sexista testuinguru zabalago batean kokatzeko gaitasuna izan du baita jaietan ere.**

Bi lan-ildo nagusi garatzen dira urtez urte: **sentsibilizazioa eta eraso kasuetan; erantzuna.** Azken hori protokoloaren bitartez arautu da. Behatokiak ere bi atal horiek aztertu ditu, ondorengo aldagaien bitartez:

6.2 'Joka sano! Tolosak, ezetz!', '#LIBRENonahi' kanpainak eta Gune Morea

Urtero egiten den bezala, udaletik Berdintasun Departamentuak zuzentzen eta diseinatzen duen sentsibilizazio-kanpaina bultzatu zen. 2025. urteko **indarkeria matxistaren kontrako kanpainak** ekintza ezberdinak izan ditu. Hona hemen egin denaren zerrenda:

- Gazteria Departamentuak antolatuta, urtero bezala, AI LAKET elkarteak gazteekin egiten duen esku-hartzea prestatu du.
- Joka Sano kartela 24 orduko telefonoarekin hainbat lekutan zabaldu da: herriko panel informatiboetan, taberna eta saltokietan.

- Egitarauko eskuorri handian indarkeria matxistaren aurkako mezuak eta gune moreko eta udaltzaingoaren telefonoa jarri dira.
- Hirugarren urtez, tabernariei alkateak sinatutako gutun bat bidali zaie, eraso sexista baten aurrean jarraitu beharreko gomendioekin eta aurten Gune Morearen berri eman da.
- Udalak dekalogo udal-webgunean argitaratuta du, sexu-eraso baten aurrean jarduteko aholkuekin, eta sare sozialetan partekatu du.

Tolosako Udalak ibilbide luzea du jaietan indarkeria sexistaren kontrako jarrera erakusten eta sensibilizazio-kanpainak abiatzen, San Joan jaietan zein inauterietan. Eta Tolosak, EZETZ!/Joka Sano kanpaina konpromiso horren erakusle garbia da.



Kanpaina horiez gain, azken urteetan **indarkeria sexistari aurre egiteko beste lanketa-erabatzuk ere sozializatzen ari dira**. Joan den udaberrian, urtero legez, “**Autodefentsa Feminista**”, antolatu zen Jabetze Eskolaren baitan, Gazteria, Gazte Topagunea eta Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailarekin elkarlanean, kasu honetan 11-14 urteko neska gazteentzat.



Gune morea

San Joanetan, hirugarren urtez, **Indarkeria matxisten aurkako gunea** (orain arte Gune Morea izendatzen zena) arreta zerbitzua eman du Emakumeon plazan. Andragora Emakumeen Etxearen aurrean jarritako karpa batean. Ekainaren 21, 23an eta 24an aritu da gauean zehar.

Pasa den urtean bezainbeste egun egon da indarrean zerbitzua. Zerbitzu honen helburuen artean indarkeria matxista jasotzen duten pertsonak artatzea eta sexu heziketa lantzeko jomuga du. Horren baitan, nahiz eta gehienbat, emakumeen aurkako erasoak artatzera bideratuta egon, LGTBQ+ pertsonen aurkako erasoak ere artatzeko prestatuta dauden profesionalak egon dira. Nolabait, mota guztietako indarkeria matxistako erasoak artatzeko gaitasuna egon da.

Gune Moreak **160 pertsona artatu** ditu, 90 (%56) emakume, 69 (%43) gizon eta ez bitar 1 (%1). Nahiz eta datuak oso antzekoak izan, Gune Morera hurbildutakoen gehiengoa neska gazteak izan dira. **Ez dute inongo indarkeria matxista kasurik artatu.** Arreta jaso duten pertsona guztiak zalantzak edo informazio eske hurbildu dira. Material propioa eta udaleko euskarriak erabili dira.

Jai gunetarako eta gaueko aisialdirako protokoloa

2024ean gaueko aisialdian indarkeriari aurre egiteko protokoloa egin zen eta 2025ean zehar herriko taberna ezberdinetan aplikatzen hasi da. Beraz, aurtengo San Joanetan protokoloa ondorengo tabernetan indarrean egon da: Baserri, Bide-Bide, Koinoburi, Orbela, The Nest, eta 1990.

Protokolo honek urteetan zehar jaietan martxan egon den “joka sano” kanpaina osatzera etorri da. beraz, kanpaina honek defendatzen duen ikuspegian oinarrituz protokoloa osatu da.

6.3 Sexu-erasoak edo sexu erasoen aurrean Udal zerbitzuen betebeharrak

2017an “Udal-zerbitzuen betebeharrak” izeneko protokoloa jai-testuingurura egokitu zen. Geroztik protokoloa indarrean egon da, eta une oro behar izan duen egokitzapen txikiak egin zaizkio. **Protokoloan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar diren azaltzen da** eta erantzukizun teknikoa Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen artean partekatzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko laguntza festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenez, egoerari/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. San Joanetan, udaltzaingoa informazioa jaso ondoren, alkateari eta jaietako eta berdintasuneko zinegotziei gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da.

Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari egiten dio erreferentzia. Udalaren, Mugimendu Feministaren eta Tolosako emakume elkarten artean deialdi bateratu bat egingo da. Eta San Joan jaien testuinguruan gertatzen dela kontuan hartuta, jaietako eragile guztiekin koordinazioa mantenduko da: zinegotziek eta teknikariek informazioa jasoko dute eta jaietako gizarte-eragileei helaraziko diete, jaietako teknikariaren laguntzarekin (eskopetariak, kuadrillako ordezkariak, Bordon-dantzariak, musika bandakoak, txosna gunekoak, kiroleko ordezkariak...). Kontzentrazioa eraso gertatu ondorengo 24 ordura egingo da, 19:00tan udaletxe aurrean.

Berriazko protokolo horren bitartez, eragileen jarduna arautu da: udal-eragile, Mugimendu Feminista eta emakume-elkarte eta jaietan parte hartzen duten eragileena. Protokoloa egiteko orduan, Mugimendu Feministako eta emakume elkarteetako kideek ere parte hartu dute, eta beraz, adostasun zabal batekin egin dela esan daiteke. Berdintasun-teknikariek prozesuaren eta emaitzaren balorazio positiboa egiten dute.

Protokoloa onartzeak jaietan indarkeria sexistaren gaian balio handiko urrats bat gehiago ematea esan nahi du: udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasunezko gaia dela aitortuz. Horregatik, garrantzitsua da protokoloa onartu izanari buruzko

komunikazioa ere egitea. Interesgarria litzateke joera hau mantentzea eta hurrengo urteetan ere, gogorapen moduan protokoloaren sozializazioan sakontzen jarraitzea.

2025ko San Joanetan Itaia-Tolosaldea erakundeak eraso sexual bat salatu zuen eta ondorengo kontzentrazioa egin zuen. Halaber, Deialdi publiko-bateratua ez zen aktibatu hainbat eragilerekin kontrastatu ondoren, ez baitzen ez salaketarik jaso ezta erasoaren inguruko beste informaziorik aurkitu.

Urtero bezala, arloen arteko koordinazio bilera egin da.

6.4 Balorazioa

Orokorrean

Aipatu bezala, eraso sexisten esparruan jaietan **udal-politika egonkortuta** dago, **sentsibilizazioaren eta informazioaren alorrean bereziki. Arretan ere aurrerapenak** egin dira eta horiek **finkatu** direla esan daiteke; Gune Moreaz ari gara. Horretaz gain, jaietan aritzen diren **eragileen formakuntza eta sentsibilizazioa arakatzea garrantzitsua da eta bide horretan pausoak ematen jarraitu behar da**, hala nola, Kuadrilla Eguneako eragileekin, elkarte gastronomikoekin edo bestelakoekin.

Balorazioa Berdintasun adierazleen bitartez

Alor hau amaitzeko, berdintasun-adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahal izango dugu gaien egoera, baita modu sinple batean neurtu ere.

Sentsibilizazio-kanpainak eta gaien formakuntza

	GUTXI	ERABAT
Herritar ororentzat udaletik kanpainak bideratzen dira jaietan		
	GUTXI	ERABAT
Kanpainen lanketa sistematizatuta dago eta ez da zalantzan jartzen		
	GUTXI	ERABAT
Jaietako eragileei, urtez urte, prestakuntza ematen zaie gaiaren inguruan		

Arreta: protokoloak eta bestelako zerbitzuak

	GUTXI	ERABAT
Jaietara egokitutako indarkeriaren aurkako protokoloa indarrean dago		
	GUTXI	ERABAT
Jaietara egokitutako indarkeriaren aurkako protokoloa eragile feministekin adostuta dago		
	GUTXI	ERABAT
Udalak arreta-zerbitzu berezituak jartzen ditu		
	GUTXI	ERABAT

Dauden zerbitzu guztien informazioa eskuragarri dago



7. BALORAZIO OROKORRA

Atal honetan, txosten honek bildu dituen gaien laburpen bat jasotzen da. Honekin batera, etorkizunari begira jarri eta gaian aurrera jarraitzeko ildo posibleak aipatuko dira.

Tolosako San Joan jaietan Berdintasun Behatokiak egindako azterketak seigarren urtez jasotzen ditu jai-giroko genero-desberdintasunei buruzko diagnostikoa eta iradokizunak. 2025eko ekitaldian, aurreko urteetako joerari eutsiz, hainbat arlotan aurrerapausoak egon dira, baina baita erronka berriak eta egonkortzen ari ez diren alorrak ere identifikatu dira.

Txupinazoan, Tolosa Kantari talde mistoak izan da protagonista. Talde honek **kulturaren eta herri-partaidetzaren isla parekidea eskaintzen du**. Hala ere, oraindik gabezia batzuk ikusi dira, hala nola indarkeria matxistaren aurkako ikur edo mezu falta. Horrek iradokitzen du beharrezkoa dela irizpideak ez bakarrik ezarri, baizik eta sozializatu eta barneratu ere egitea, eraginkortasuna bermatzeko. Hau da, etorkizunari begira jarrita, **irizpideak eragileekin eta omenduekin sozializatzea gero eta premiazkoagoa da**.

Musika-programazioan %34 emakume musikari egon dira, %36ko gutxieneko irizpidetik oso gertu. Transgenero musikari baten presentzia nabarmendu da bigarren urtez jarraian, eta hori aurrerapauso gisa ulertzen da. Hala ere, talde mistoetan maskulinizazioa nagusi izaten jarraitzen du, eta oholza gaineko emakumeen presentzia ez da egonkor hazi. Hortaz, **erronka nagusia** ez da datu puntualetan gelditzea, baizik eta **irizpideen aplikazio praktikoa sendotzea eta programazio-politika bidez emakumeen eta genero-aniztasunaren presentziaren handitzea bermatzea**.

Kirol jardueretan, fitxa bete duten ekimenetan oinarrituta, partaidetza ez da aurreko urtean bezain parekidea izan. Horrek agerian uzten du urte batean lortzen denak ez duela zertan esan nahi hurrengo urtean errepikatuko ala hobetuko denik; urtez urte eta denboran zehar egin beharreko lana da. Aurrerapauso gisa, lehenengo aldiz, talde batek berdintasunaren aldeko urratsak emateko interesa erakutsi du betetako fitxan.

Indarkeria matxistari dagokionez, **sentsibilizazioan, koordinazioan eta arreta-zerbitzuetan egonkortasuna** lortu dela esan daiteke: Gune Moreak hirugarren urtez jarraian funtzionatu du eta protokolo espezifikoak indarrean daude. Tabernetan protokoloa ezartzen hasi da eta hori ildo estrategiko oso baliotsua da, baina orokortzea eta ikusgarritasuna erronka da. Honetaz gain, alor horretan pausoak ematen jarraitzea ezinbestekoa da, horregatik jaietako eragile ezberdinen formakuntza eta sentsibilizazioa arakatzen jarraitzea garrantzitsua litzateke, hala nola, ostalariekin, elkarte gastronomikoekin eta abar.

2025ean, Berdintasun Behatokiak hainbat eremutan aurrerapenak egiaztatu ditu, hala nola, **Bordondantzarien kasuan** aurtengo denek dantzatzeko arropa berdina erabili dute, hau da, arropek ez dituz gizon-emakumeak desberdindu.

Behatokiak jai parekideagoen bidean **irizpideak eta tresnak ezarri eta dokumentatzeaz gain**, erronka nagusietako bat egun dauden **tresnak gizarteratzea** izango litzateke, horiek ezagutarazteko eta **beste eragile batzuk**, udaletik harago, **aplikatzen hasteko**. Bide batez, beste eragile batzuek tresna horiek erabiltzea funtsezkoa da **ibilitako bidean sakontzeko**.

Era berean, Behatokiaren lana ez da udal-eremuan bakarrik kokatu behar: herriko elkarteek, eragileek eta jaietako parte-hartzaileek ere erantzukizun kolektiboa dute jaiak berdinzaleak,

seguruak eta parte-hartzaileak izan daitezten. Beraz, eragile hauekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa da pausu gehiago eta sakonagoak emateko.

Behatokiaren zazpigarren txostena izanik, ikusten da gai batzuetan sakondu ahal izateko premiazkoa dela ikuspegi estrategiko berritu batekin lan egitea: jasotako datuen eta esperientzien gaineko balorazio sakona egitea, hausnarketak kolektibizatzea eta erronka berriak jaietan aritzen direnekin zehaztea. Horrela bakarrik lortuko dugu benetako eraldaketa: pausoz pauso, baina oinarri sendoekin.

8. GEHIGARRIAK

Musika programatzeko udal-irizpideak

Musika-taldeen aukeraketa udaletik bideratzen da. 2019tik aurrera **udalak jaietan musika-jarduerak aukeratzeko irizpide argiak ditu**, honatx:

Oholtzan eta beste musika-jardueretan emakumeen presentzia handitzeko honako hau proposatzen da:

1. Ezaugarri berdineko bi talderen artean emakume gehien dituen taldea lehenetsiko da.
2. Kontratutako diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoak izango dira.
 - a. Igotzen den heinean, aurreko urteko gutxieneko ehunekoa (%) hurrengo urteko minimo bezala onartuko da.
 - b. Urtez urte gutxieneko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte.
3. Emakumez barrik osatutako taldeen urteko ehunekoa handitzen joango da.
4. Gaueko kontzertuetan emakumeen presentzia minimoa % 25ekoa izango da eta lehenago erabili diren irizpide berdinak ezarriko dira atal honetarako.

Musika analisirako erabilitako taula:

SAN JOANAK 2025	MUSIKARIEN SEXUA			
	EMAK.	GIZON.	SEXU-GENERO TRANSGRESOREAK	GUZTIRA
Oroimenaren kontzertua, orkestrina band jazpana	1	4		5
Puro relajo		5		5
Txupinazo ondorengo IRAUNKORRAK TXARANGA		10		10
Isidro Larrañaga: akordeoi orkestra	12	11		23
Lukie		3		3
Mirua	2	1		3
Bonborenea txaranga; kuadrilen txupinazoa	5	18		23
Giro arte dultzaina taldea; kuadrilen txupinazoa		3		3
Batimore batukada feminista	27			27
Erromeria iratzar	2	4		6
Mulambo	6	10		16
Dj fresa morango	2			2
The hastelens	1	5		6

Oxabi	1	7		8
Dj fulana			1	1
Jainekin txaranga		10		10
Et incarnatus orkestra	14	12		26
Arnas berriz txistulari kontzertua	16	39		55
Maren	1	3		4
Udal txistularien banda		6		6
Eduardo mocoroa musika eskolako ikasleen banda su txikia girotzeko	24	32		56
Udal musika banda; san joan sua ondoren	15	30		45
La otra oreja	1	3		4
Udal txistularien banda; zinegotziei deia		6		6
Udal musika banda; diana	15	30		45
Tolosako txistulariak+iruñako txistulariak; diana		10		10
Udal musika banda; eskopetariekin diana	15	30		45
Tolosa eta iruñako txistulariak + udal banda kontzertua	15	40		55
Udal txistularien banda + musika banda; eskopetariekin ohiko ibilbidea	15	36		51
Kalean txaranga	1	9		10
Dupla		2		2
Muxutruk	2	3		5
GUZTIRA	193	382	1	576
%	%34	%66	%0	%100

PROIEKTUAREN LIDERGOA



LAGUNTZAREKIN



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

